


2015-2016 ikasturtean Batxilergoan matrikulatutako ikasleen erdiak baino gehiago D ereduan ikasten ari dira

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k aurtengo 2015-2016 ikasturteko matrikulazio datuak aztertu ditu, Batxilergoan matrikulatzen diren gazteek eta beraien familiek zein eredu aukeratzen duten aztertu nahian.

2015-2016 ikasturtean 30.168 gazte daude Batxilergoan ikasten Euskadin. Horietako erdiak baino gehiago (18.491) D ereduan ikasten ari dira, % 61,3, hain zuzen ere.

Portzentaje hori ez da berdina lurralde historiko guztietan: % 73,9koa da Gipuzkoan, % 55,6koa Bizkaian eta % 50,7koa Araban.



Aipatutako datu hauek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza-sistemari buruzko [estatistiketatik](#) atera dira.

[EUSTAT](#)en (**Euskal Estatistika Erakundea**) ere kontsulta daitezke datuok, Hezkuntza atalean, hain zuzen ere.